# Memoriaren astea

## Amasa-Villabona

**Martxoak 24-31 Marzo**

***Esperientziak erakusten digu, amnesiaren erruz, historia behin eta berriro errepikatzen dela, amesgaizto baten moduan. Memoria onari esker, iraganaz ikas dezakegu; izan ere, iragana berreskuratzeak zerbaitetarako balio badu, oraina eraldatzeko da.***

**E. Galeano.**

Aritza Kultur Elkarteak, Villabonako Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin, lau urte daramatza gerra zibilaren eta lehen frankismoaren ondorengo gertakariak ikertzen. Aurrekaririk gabeko ikerketa izan da. Eta helburua bikoitza: ezkutatu zaigun egiaren zati bat jakiteko nahi historikoa batetik, eta sortutako ezagutza herritarren eskura jartzea, bestetik.

Billabonatarrek, garai hartako beste herritar askoren antzera, Errepublikaren aurkako estatu kolpe militarra jasan zuten 32 hilabetez.

Villabonan ez zen berezko enfrentamendu militar zuzenik egon, baina herritar batzuek armak hartu zituzten legezkotasuna defendatzeko eta kolpistei aurre egiteko, beste herritar batzuk, ordea, kolpistekin borrokatu zuten legezkotasunari aurre egiteko, eta gehiengoak –bereziki emakumeek, adinduek eta haurrek– gerraren ondorio latzak jasan zituzten.

Gerra amaituta, gauzak ez ziren errazagoak izan, diktadura aldi luze bat etorri zen, irabazleen gorespena eta galtzaileen umiliazioa nagusi zen giro bat, non herritarrek euren bizitzei aurre egin behar izan zieten; errealitate gordin hori, ordea, historiako liburu ofizialetan ezkutatu egin da.

Isilune luze horren ondoren, egindako ikerlanari esker, orain arte ezezagunak izan diren gertakizunak eta pertsonaiak ezagutarazi nahi ditugu. Eta historiografia ofizialak ahaztu baditu ere, guk historia garaikidearen lehen lerroan kokatu nahi ditugu.

Horretarako antolatu dugu memoriaren aste hau, azken lau urteetan garatu den ikerketa lana ikusgarri egiteko eta historiak ahaztera kondenatu dituen herritarrak omentzeko.

Aste honetan hiru ardatz dituen errealitate bat erakutsi nahi dugu, ertz desberdinetatik. Batetik, egiaren kontzeptuan sakondu nahi dugu eta horretarako aukeratu dugu martxoaren 24a, Nazio Batuen Erakundeak, egia ezagutzeko nazioarteko egun gisara zehaztua duena. Esti Amenabarrok idatzi duen ***Frankismoaren aztarnak arakatzen II: egiaren minak*** liburuak, egiaren beste zati bat mahai gaineratu nahi du, orain arte kontatu ez den historia bat. Modu berean, Villabonako Udalak sustatuta **www.amasavillabonaoroitzen.net** web orria abiatu dugu; bertan epe historiko honi buruzko informazio guztia, dokumentazioaz lagunduta aurkezten dugu.

Bestetik, belaunaldien arteko transmisioa bermatu nahi dugu, gaurkoek atzokoaren berri izatea beharrezkoa baita aurrera egiteko, eta horretarako, ***Negar franko egingo zuen aitak*** izeneko dokumentala ikusi ahal izango dugu. Bertan, frankismoaren lehen urteetan billabonatarrek izandako bizipenak kontatzen zaizkie gazteei (protagonista batzuk lehen pertsonan jasan zutena kontatuko dute).

Aste hau osatzeko, memoria historikoaren alorrean lehen lerroko adituak izango dira Villabonan.

Azkenik, Goyo Armañanzasen gidaritzapean, tailer bat burutuko dugu, isiltasunaren kudeaketa ikuspegi psikosozialetik lantzeko. Helburua, inposatu zaigun isiltasuna apurtzeko espazio bat lantzea izango da. Aipatu tailer honetan parte hartzeko esku orri honetan duzuen inprimakia bete besterik ez da egin behar.

Isiltasuna egokiena zela pentsatu zuten nonbait.

Isiltasunak zauriak sendatuko zituelakoan. Guk isiltasunari, errespetua eta aitortza erantsi nahi diogu.

Eta erreparazioa.

***Es la amnesia la que hace que la historia se repita como pesadilla. La buena memoria permite aprender del pasado, porque el único sentido que tiene la recuperación del pasado es que sirva para la transformación del presente.***

**E. Galeano.**

Aritza Kultur Elkartea, con el apoyo del Ayuntamiento de Villabona y la Diputación Foral de Guipúzcoa, lleva cuatro investigando la memoria histórica en la guerra civil y el primer post-franquismo. El objetivo de esta investigación es doble: por una parte la necesidad de conocer una verdad histórica que nos ha sido ocultada y por otro lado, poner a disposición de los ciudadanos todo el conocimiento surgido de la misma.

Villabona no contaba hasta ahora con una historia escrita de lo que sucedió a muchos de sus habitantes que, como tantos otros ciudadanos de aquella época, sufrieron el golpe de estado militar que intentó acabar con la República y que se convirtió en una contienda de más de 32 meses.

Aunque en Villabona no hubo prácticamente frente, algunas personas empuñaron las armas para defender la legalidad y se enfrentaron a los golpistas, otros tantas lucharon con los golpistas y se enfrentaron a la legalidad, y la mayoría -especialmente las mujeres, las personas mayores y los niños y niñas- sufrieron las consecuencias de todo lo que conlleva la guerra.

Una vez concluida la guerra las cosas no fueron mas fáciles; prosiguió una larga dictadura junto al ensalzamiento de los vencedores y la humillación de los vencidos; los ciudadanos tuvieron que reanudar con sus vidas en ese ambiente hostil.

Tras muchos años de silencio, gracias al trabajo de investigación realizado hasta ahora podemos presentar a la ciudadanía datos inéditos sobre lo que aconteció en aquella época. Nosotros queremos presentar al público a esas personas que la historiografía oficial ha olvidado, poniéndolas en primera línea como grandes protagonistas de la historia reciente de nuestro pueblo.

Y para ello hemos organizado esta semana de la memoria; para dar relieve a estos cuatro años de investigación pero también para rendir tributo a todas estas personas.

Durante esta semana queremos mostrar una realidad desde tres vertientes. Por una parte queremos profundizar en el concepto de la verdad; no es casualidad que hayamos elegido el 24 de marzo para presentar el libro escrito por Esti Amenabarro bajo el título ***Amasa-Villabona una mirada al pasado II: la historia no contada***, pues está marcado como el día internacional del derecho a la verdad por la ONU. En la misma línea, presentaremos la página web **www.amasavillabonaoroitzen.net**, donde se recoge toda la documentación y conocimiento que se ha desarrollado durante esta investigación.

Por otro lado nos interesa la transmisión transgeneracional, creemos que es necesario que las generaciones actuales tengan constancia de que pasó verdaderamente, es la única forma para poder seguir adelante; para ello presentamos otro trabajo ***Negar franko egingo zuen aitak***, documental donde jóvenes y adultos (algunos de ellos protagonistas directos de vivencias de esta etapa histórica) dialogan sobre el franquismo.

La semana se completará con aportaciones de personas referentes en el ámbito de la investigación de la memoria histórica.

Por último y para completar la semana, trabajaremos el silencio y sus consecuencias desde una perspectiva psicosocial, para ello estará entre nosotros el coach Goyo Armañanzas. Las personas que tengan interés en participar en este taller tendrán que inscribirse en la página web del ayuntamiento (www.villabona.eu) o entregar el cupón de inscripción en las oficinas del consistorio.

Pensaron que quizás lo mejor era condenar unos hechos al silencio. Pensaron que ello curaría de por sí las heridas.

Nosotros al silencio queremos sobreponerle el respeto y el reconocimiento.Y reparación.

**MARTXOAK 24** MARZO c *astearte / martes*

***Subijana etxea***

**19:00**

***Frankismoaren aztarnak arakatzen II: egiaren minak*** *liburuaren aurkezpena / Presentación del libro.*





**• Carlos Martin Beristain:**

Medikua eta psikologian doktorea. Oso nabarmena da bere ekarpena gatazka sozial eta politiko nabarmenak bizi izan dituzten herrialdeetan. Berriki Paco Etxeberriarekin batera, Saharan gertatu sarraskien inguruko ikerketa gidatu du. Bere tesia Guatemalan, mayekin garatu zuen, dolua eta biolentzia politikoaren azterketa egin zuelarik. Osasuna eta biolentzia politikoaren alorrean, lehen mailako aditua da.

Médico y doctor en psicología. Ha trabajado activamente en países que han vivido situaciones de conflicto social y político. Recientemente ha llevado a cabo, junto con Paco Etxeberria, una investigación sobre las masacres sucedidas en el Sáhara. Su tésis doctoral, realizada en Guatemala, versó sobre la violencia política y el duelo entre los mayas. Se le considera un especialista mundial en relación a los temas de violencia política y reconstrucción de la convivencia.



**• Paco Etxeberria Gabilondo:**

Auzi medikua da, antropologoa, espeleologoa, ikertzailea, EHUko Lege eta Auzitegi Medikuntzako irakasle titularra, Aranzadi Zientzia Elkarteko Lehendakaria, Espainiako Paleopatologia Elkarteko idazkaria, eta Euskal Kriminologia Institutuko zuzendariordea.

Médico forense, antropólogo, espeleólogo, investigador, Profesor Titular de Medicina Legal y Forense en la UPV, Presidente de Aranzadi Zientzia Elkartea, Secretario de la Sociedad Española de Paleopatología, y Subdirector del Instituto Vasco de Criminología.

**MARTXOAK 25 MARZO** c *asteazkena / miércoles*

***Subijana etxea***

**19:00**

***Frankismoaren aztarnak arakatzen:*** *erbestea.*
***Las huellas del franquismo:*** *el exilio.*

**• Josu Chueca:**



Historia Garaikidean doktorea da. EHU/UPV Unibertsitatean irakaslea da. Bere ikerketa ildo nagusiena euskal abertzaletasunaren esparruan kokatu behar da. Gerrate Zibila eta II. Errepublikaren inguruko bere ikerketa esparrua oso aberatsa da.

Doctor en Historia Contemporánea y profesor en la EHU/UPV. Su principal línea de investigación versa entorno al nacionalismo vasco. Ha investigado profundamente sobre la Guerra Civil y la II Republica.

**MARTXOAK 26 MARZO** c *osteguna / jueves*

***Subijana etxea***

**19:00**

***Frankismoa eta emakumeak, zigor bikoitzaren kronikak.***
***Franquismo y mujer: cronica de un doble castigo.***

**• Lourdes Herrasti:**



Geografia eta Historian lizentziatua da. Irakaslea ogibidez. Aranzadi Zientzia Elkarteko Antropologia saileko arduraduna da. Osteoarkeologian espezializatua. Azken hamarkadan egin diren deshobiratze gehienetan parte hartu du, eta emakumeen egoera aztertu du bereziki.

Licenciada en Geografía e Historia. Profesora de profesión. Es responsable de la sección de Antropología en la Sociedad de Ciencias Aranzadi. Especializada en osteoarqueologia. Ha participado en la mayoría de las exhumaciones que se han realizado durante la última década. Ha investigado especialmente el ámbito de las mujeres.

**MARTXOAK 27 MARZO** *ostirala / viernes*

***Villabonako Udal Areto Nagusian***
***Salón de Plenos del Ayuntamiento de Villabona***

**11:00**
**amasavillabonaoroitzen.net** *web orriaren aurkezpena* .
*Presentación de la página web* **amasavillabonaoroitzen.net**.

---

**MARTXOAK 30, 31 MARZO** *astelehena, asteartea*

***Isiltasuna: traumaren sintomak*** *topaketak* / ***El silencio: los síntomas del trauma*** *encuentros*

**Izen emateko orria / Hoja de inscripción:**

**Izen-abizenak / Nombre y Apellidos:** ..................................................................................
**Helbidea / Dirección:** ..................................................................................
**Udalerria / Municipio:** ........................................................ **Posta kodea /C.P.:** ...................................
**Jaiotze data / Fecha nacimiento:** ..................................................................................
**e-mail:** ..................................................................................

**MARTXOAK 30, 31** *astelehena, asteartea*

***Subijana etxea***

**18:00 - 20:00**

***Isiltasuna: traumaren sintomak*** *topaketak* (gazteleraz).
*Encuentros* ***El silencio: los síntomas del trauma*** (castellano).



• **Goyo Armañanzas** *(traumaren transmisioaren aditua / experto en transmisión del trauma).*
Mediku-psikiatra, grupoanalista, psikodramatista, 30 urteko esperientzia baino gehiago du coach dinamikan.

Médico psiquiatra, grupoanalista, psicodramatista con más de 30 años de experiencia en dinámicas coach.

Aldez aurretik izena eman behar da **www.villabona.eu** web orrian edota inskripzio orria bete eta Villabonako Udalean entregatu.

Es necesario la inscripción previa en la pagina **www.villabona.eu** o entregar la hoja de inscripción en el Ayuntamiento de Villabona.

**>> Martxoaren 30 ean, arratsaldeko 17:00etan** Goyo Armañanzasek *Fantasmas de nuestra guerra* bere liburu berria aurkeztuko du Villabonan, Eunate argitaletxearen eskutik.

**30 de marzo, a las 17:00** Goyo Armañanzas presentara su nuevo libro *Fantasmas de nuestra guerra* publicado de la mano de la editorial Eunate.

**Antolatzaileak:**

AMASA-VILLABONA
Villabonako Udala

ARITZA
kultur elkartea

**Laguntzailea:**

Gipuzkoako
Foru Aldundia